

EGURALDIA. Errepideetako egoera arriskutsua da, putzu eta luizien eraginez, eta autoa ez hartzera aholkatu dute



VILLAR LOPEZ / EFE

Atzo goizean Loitin (Nafarroa) gertatutako istripua.



JESUS DIGES / EFE

Arga ibaia, Euskal Herriko beste hainbat bezala, gainezka egiteko zorian.

Euskal Herriak alerta egoeran jarraitzen du, eguraldia dela eta

Urumeak, Errobik eta Bidasoak gainezka egin zuten, eta hainbat tokitan uholdeak eragin

Eider Goenaga | DONOSTIA

Larunbatetik gelditu gabe ari du euria, eta atzo izan zen gehien bota zuen eguna. Horren eraginez, errepideetan egoera arriskutsua da, ibaiak gainezka egiteko zorian daude, eta urtegiak ere, hutsak egon ostean, abidura ikaragarrian ari dira betetzen. Gainera, ez dirudi eguraldia aldatuko denik. Eusko Jaurlaritzako Meteorologia Zentroaren arabera, atzo izan zen euri gehien egin zuen eguna, eta gaur gutxiago botatzea espero badute ere, bihar berriro ere baliteke gogor botatzea.

Gauzak horrela, Euskal Herria alerta egoeran dago. Espainiako Babes Zibileko Zuzendaritzak Hego Euskal Herria larrialdian mantentzea erabaki du, eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak gauza bere egin du Iparraldean. Gainera, euriak gain, baliteke mendialdean elurra egitea. Nafarroan, esaterako, litekeena da 1.000 metrotik gora egitea elurra.

Astelehenean, metro koadroko 60 litro inguru bota zituen hainbat tokitan; atzo, Bizkaian batez ere, kopuru hori erraz gainditu zen. Otxandion, 87,7 litro bota zituen, bezperan botatako 60 litroen aldean; Bilbo inguruan, astelehenean 20 litro, eta atzo 56,4; Gasteizen, atzo 22 litro bota zituen, eta bezperan 13; Bergaran, atzo 50,7 litro, eta astelehenean 42.

Lau egunotako euriak ibaie-tako ur kopuruan eragin du.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Hernanin Urumea ibaiak gainezka egin, eta hainbat arazo izan ziren.

«Ibaiak gainezka egitekotan dira; oraingoz, hainbat tokitan atera da ura, baina arazo handirik eragin gabe. Hala ere, hainbat lagun guardiak egiten gabiltza, edozein unetan arazoak izan baitaitezke». Hori adierazi zuen atzo arratsaldeko 18:00etan Jaurlaritzako Meteorologia Zentroak, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko egoerari dagokionez.

Bizkaian euri gehiago egin arren, Gipuzkoan arazo gehia-

go izan zen ibaiekin. Urumeak gainezka egin zuen Hernanin, eta ondorioz bi errepide itxi zituzten: Hernanitik Astigarragara doan GI-131 eta Hernanitik Goizuetara doan GI-3410. Bizkaian, Ibaizabal ibaia hamar minututik behin hiru zentimetro hazi zen atzo.

Nafarroan, Bidasoa ibaiak egin zuen gainezka atzo; inguruko herrietako kaleak urak hartu zituen, eta N-121 errepide itxi behar izan zuten. Bes-

talde, Arbizu eta Beasain arteko 120 errepidea ere itxi zuten.

Ipar Euskal Herrian, Errobi ibaiak egin zuen gainezka, baita erreka txiki askok ere. Arratsaldean hainbat errepide moztu zituzten, Saran bertzeak bertze. Orzaize eta Azkarateko errepideak ere itxirik zegoen. Ziburun kalte handiagoak izan ziren; industrialdeko hainbat lantegi itxi zituzten, eta Piarres Larzabal kolegioa ere itxi behar izan zuten —astelehenera arte ez dute irekiko—.

Bidaxunen, D-653, D-253 eta D-10 errepideak moztu zituzten; Mugerren, D-312 errepideak; eta Aturri aldean, autobiderako sarrera, Baionan. Baiona Ttipiko zenbait karrika ere urpean zeuden. Donibane Lohitzunen, 50 metro labar erori ziren itsasora.

Errepidean kontuz, baita itsasgorarekin ere

Kostaldean, atzo arratsaldeko 16:00ak inguruan izan zen une kritikoena, itsasgoraren eraginez; eta goizaldeko 04:00etan berriro ere ibaie-tako urek gainezka egiteko arriskua zegoela ohartarazi zuten.

Moztu ez dituzten errepideetan, berriz, kontu handiz gidatzera aholkatu dute errepideetako arduradunek. Izan ere, putzuak gero eta gehiago dira; auto pilaketak gertatzen ari dira, luiziak; zirkulazioa mantso dabil, eta istripu ugari gertatzen dira. Ahal dela, autoa ez hartzera aholkatu dute.

ISTRIPUAK

Emakume bat hil eta sei lagun zauritu dira Loitin

Euskal errepideak arrisku iturri dira egunotan, ohi baino gehiago, eta horren erakusgarri garbiena atzo Loitin (Nafarroa) gertatutako istripua izan zen.

Goizeko 09:30ean gertatu zen ezbeharra, N-240 errepidean. Renault Cangoo batek kontrola galdu, ezkerreko aldera atera, irauli eta kontrako norabidean zihoan auto bat jo zuen. Kolpearen eraginez, Huescako Lastiesas de Arriba herriko (Espainia) emakume bat zendu zen, 50 urtekoa, eta sei lagun zauritu ziren. Emakumearekin auto berean zihoazen lau lagun —Huescakoak guztiak— erietxera eramane zituzten, eta beste autoan zihoazen iruindar bi ere larri zauritu ziren. Iruñeko bi zaurituek 37 eta 34 urte dituzte. Guardia Zibilaren arabera, istripua eragin zuen autoa bizkorregi zihoan, eta errepidearen egoera ere ez zen ona, euriaren eraginez.

Horrez gain, beste istripu ugari izan ziren atzo euskal errepideetan. Asko txapa kolpeak baino ez ziren izan, baina larriagorik ere izan zen. Lapuebla de Labarcán (Araba), esaterako, bi autok elkar jo, eta Eltziegoko gizon bat larri zauritu zen. Aduan, N-1ean, bi kamioik, furgoneta batek eta auto batek izan zuten kolpea; lagun bat zauritu eta auto ilara luzeak izan ziren.